

ANOETA / Anoetako Liburutegian eskuragai daude iritsitako eleberri berriak

ANOETA. DV. Anoetako Udal Liburutegiak bere apalak osatzeko asmoz liburu berriak eskuratu ditu. Guztira 13 argitalpen berri dira, autore eta gai ugaritakoak, Euskadi Literatura Sariko irabazleak barne. Sail honetan erositakoak dira Harkaitz Canoren Belarraren ahoak, La tierra Convulsa (R. Pinilla), Pupuan trapua (X. Olaso) eta Parisen sabela (E. Zola). Hauekin batera liburutegiak erositako beste liburuak dira Esclava blanca (Rosset), El Juramento (K. Baiev), Aquí nos vemos (J. Berger), Erlea gure sendagile (J. Díaz), El lenguaje secreto de los niños (Shapiro), Sua nahi, Mr Churchil (K. Izagirre), Erregearen mezularia (Toti Martínez de Lezea), Origenes (Xabier Peñalver) eta Betiko jolasak (Susperregi).

Proiektu berriak

Anoetako Udalak 2006 urtean zehar prestatu nahi dituen proiektu berri ugari ditu eskuartean. Oraingoz proiektuak besterik ez badira ere, laster errealitate bihurtzea espero du anoetarren bizi kalitatea hobetu dadin. Martxan dauden proiektuak dira besteak beste, ur depositu berriaren inguruan atsedeen leku bat egokitzea, zentralaren inguruko etxeetara ura eramatea, kiroldegia erabilpena eta kudeaketa martxan jartzea, udal-kudeaketa hobetzearen ildotik hartutako bidea jarraitzea eta, Anoetako Agenda 21-en diagnostikoaren burutze prozesuan ekarpenen zerrenda osatzea.